


---

Año LIII urtea

N.º 95. zk.

2021



# CUADERNOS de Etnología y Etnografía de Navarra

SEPARATA

---

## Sunbillako etxe-izenak eliz atariko hilarrietan

Koldo Colomo Castro

---

# Sumario / Aurkibidea

## Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra

Año LIII urtea - N.º 95. zk. - 2021

### ARTÍCULOS/ARTIKULUAK

Último siglo del abasto de nieve en Pamplona (1818-1922) Ricardo Gurbindo Gil	9
Un ritual milenario, un carnaval centenario: el caso de los «guardianos» o salteadores de Lanz (1818) y la invención de la tradición Jesús M. Usunáriz	55
Estelas discoideas de Ardaitz, valle de Erro (Navarra) Sara González Bravo, Iñigo García Echeverría	87
Producción y comercio de carbón vegetal en las Bardenas Reales de Navarra Juan Manuel Garde Garde	103
Los clérigos rurales de Gipuzkoa y su relación con la danza durante la Edad Moderna (siglos XVI, XVII y XVIII) Ricardo Urrizola Hualde	133
Xundak eta ezpondak. Laborantzarako terraza-sistemak Nafarroako isurialde atlantiarrean: Baztan haraneko zenbait adibide Josu Narbarte, Mattin Aiestaran, Maite Errarte Zurutuza, Suberri Matelo Mitxelena	187
Erramun Joakin Sunbil, Iturengo arotza Andres Iñigo Ariztegi	209
Sunbillako etxe-izenak eliz atariko hilarrietan Koldo Colomo Castro	227
Ikazkintza Sakanan Jose Luis Erdozia Mauleon	241
La jota y la taranta. Ritualidad de la música y la danza en la cultura tradicional aragonesa Manuela Adamo	257

# Sunbillako etxe-izenak eliz atariko hilarrietan

---

Nombres de casa en las sepulturas del atrio de la iglesia de Sunbilla (Navarra)

---

House names on the tombs in the atrium of the church of Sunbilla (Navarre)

Koldo Colomo Castro  
Ikerlari independentea  
koldocolomo@yahoo.com

DOI: <https://doi.org/10.35462/CEEN95.8>

Esker anitz: Eneko Anduagari, Malerrekako euskara teknikariari, harremanak egiteko emandako laguntzagatik; Miren Hernandorenari Sunbillako oikonimiari buruz argitaratu gabeko lana erabiltzen uzteagatik; Francisco Javier Latasari Hernandorenaren lana partekatzeagatik eta Sunbillako bi elizei eta hilerriei buruzko informazio oparoa emateagatik; Andres Iñigori Sunbillako etxe-izenei buruz zuen dokumentazioa eskuzabal-tasunez nirekin partekatzeagatik.

Jasotze data: 2021/09/29. Behin-behineko onartze data: 2021/10/07. Behin betiko onartze data: 2021/12/16.

## LABURPENA

Sunbillako Done Joane Bataiatzailearen parrokiako eliz atarian hilobi-lauza epigrafiatuak daude. Idazkunen ikerketaren bidez, berrogeita zazpi etxe-izen bildu eta kronologia orokorra proposatu da.

**Gako hitzak:** etxe-izenak; Nafarroa; Sunbilla; hilarriak; ageriko idazkunak.

## RESUMEN

En el pórtico de la parroquia de San Juan Bautista de Sunbilla existe un conjunto de losas sepulcrales epigrafiadas. A través del estudio de las inscripciones se han recogido cuarenta y siete nombres de casas y se ha propuesto una cronología general.

**Palabras clave:** oiconimia; Navarra; Sunbilla; estelas; escrituras expuestas.

## ABSTRACT

In the portico of the church of San Juan Bautista of Sunbilla there is a group of epigraphic tombstones. Through the study of the inscriptions, forty-seven house names have been collected and a general chronology has been proposed.

**Keywords:** house names; Navarre; Sunbilla; tombstones; public writing.

1. ETXE-IZENAK ETA AGERIKO IDAZKUNAK. 2. DONE JOANE BATAIATZAILEAREN PARROKIA. 3. HILOBI-LAUZAK. 4. KRONOLOGIA. 5. METODOLOGIA ETA DOKUMENTAZIOA. 6. ETXE-IZENAK. 7. HONDAR HITZAK. 8. ERREFERENTZIAK.

## 1. ETXE-IZENAK ETA AGERIKO IDAZKUNAK

Euskal Herriko bertze leku batzuetan bezala, Nafarroa Garaiko ipar-erdialdean etxeak izena izan du eta familiari eman dio. Are gehiago, Nafarroako Kantauriko isurialdean etxe-izenak abizena sortu du. Azken finean, etxe-izena etxekoen identitatearen bermea izan da eta administrazioak, hasieratik, baliabidetzat hartu du etxeak bereizi ahal izateko.

Paperezko dokumentazioan azaltzeaz gain, etxeko fatxadetan eta hilarrietan zizelkatu ohi dira oikonimoak, identitatea eta jabetza adierazteko publikoki (Colomo, 2020a, 2020b).

## 2. DONE JOANE BATAIATZAILEAREN PARROKIA

Sunbilla herria Nafarroa Garaiko iparraldean dago, Malerreka ibarrean. Egungo antolaketa administratiboaren arabera, Baztan-Bidasoa eskualdean dago. XIX. mendean erdian berrehun bat etxe zeuden Sunbillan (Madoz, 1845-1850) eta 2021. urtean 675 biztanle bizi ziren (INE). Herriko ekonomia nekazaritzan oinarritu izan da. Egun, baina, herriak zerbitzuak ditu, eta turismoa gero eta garrantzi handiagoa eskuratzen ari da. Euskara izan da, eta bada, bertakoen hizkuntza nagusia, ezagutza maila %80tik gorakoa izanik.

Done Joane Bataiatzailearen parrokiaren hastapena XVI. mendean dago, herriz bertze aldean dagoen San Tiburtzio parrokia zaharrari loturik. 1550. urtean, elizako burualdea harriz eta gainontzekoa zurez eraiki zen. XVII. mendean, tenplua zabaldu



1. irudia. Sunbillako Done Joane Bataiatzailearen parrokia.

zen, lanak 1628an amaituz. 1861ean, bertze zabaltze bat izan zuen eraikinak, dorrea, gurutzadura, sakristia eta burualdea elizari gehituz. Orduko berritze lanetan, tenpluaren orientazioa aldatu zen, errekaaren gertutasuna ekiditeko. Elizako azken eraberritze lanak 1971. urtean egin ziren, hain zuzen ere, teilatua konpontzeko (García, 1989, 593-596. or.). Egun, San Tiburtzio eliza hondaturik badago ere, XIX. mendearen erdialdera artio gurtzarako erabili ziren bi elizak.

### 3. HILOBI-LAUZAK

Done Joane Bataiatzailearen eliz atariko estalpean, iparraldean, 49 etxe-izendun hilobi-lauza bilduma garrantzitsua dago. Itxura guztien arabera, eliz ataria da hilobi-lauzen jatorrizko tokia<sup>1</sup>.

1 Done Joane Bataiatzailearen elizako aitzinaldean hiru hilarri diskodun daude. *Estelas discoideas de Echalar y Vera de Bidasoa* artikuluan, Pérez de Villarreak (1987) dio haietako bat Sunbillakoa dela, San Tiburtzio eliza zaharrekoa. Bertze biak, aldiz, Berakoak dira eta haietako bat agertzen da Caro Barojak (1932) argitaraturiko *Monumentos religiosos de Lesaka* artikuluan. Hilerriari dagokionez, badakigu 1860. urtera artio hilerria elizako gibelaldean zegoela, arkupean, eta XX. mende erdialdean eliza barnean jarleku sinbolikoak zeudela. 1971 urtera artio, bederen, etxe bakoitzak izan zuen bere jarleku sinbolikoa elizaren barruan, hildakoei eskaintzak egin ahal izateko. Informazio hau Francisco Javier Latasak (79 urte) eman du.

28 lauza bere osotasunean kontserbatu dira, hiru kasutan epigrafiak galdu badute ere. Bere osotasunean mantendu direnak era ordenatuan jarririk daude: burua ekialdean eta oinak mendebaldean. Bertze lauza batzuk, berriz, zatikaturik daude, zoruan barreiatuak. Lauzetako harri mota tokikoa da, alegia, hareharria, eta lauzen neurriak antzekoak dira; osorik dauden kasuetan 184 cm luze eta 66 cm zabal dira, eta, oro har, neurria, epigrafiak eta teknika kontuan harturik, berdintasun-itxura ematen dute, garai ezberdinetan egin baziren ere.

Hobiak familiarrak dira, etxe bakoitzekoa. Kasu gehienetan, gurutze latindar xume bat agertzen da goiko partean eta epigrafiak behekoan. Epigrafiak eta dekorazioak teknika ebakiaren bidez eginak daude. Hiru kasutan (*Aranaztarrena*, *Espelosin* eta *Auloa*), baina, epigrafiak erliebe lauan landurik dago. Baliteke pieza erliebedun hauek zaharxeagoak izatea, edo agian, maila sozioekonomiko hobekixeago erakustea. Apaingarri ezberdina agertzen da *Sacerdotal* izeneko hilobi lauzan, lore moduko irudi bat baitago beheko aldean. Dekorazioari erreparaturik, biziki deigarria suertatzen da gurutze guztiak berzizelkatuak daudela ikustea, sinbolo kristaua ezabatzeko asmoz. Gurutzeak egin eta geroagoko uneren batean gertatu behar izan zen, argi dago, eta zizelarekin egin zenez, ez dirudi gaur egungo ezabaketa izan denik.



2. irudia. Eliz atariko irudi orokorra.



3. irudia. Hilobi-lauzak.

Epigrafiaren antolaketa lerrorik gabekoa da, *Aranaztarrena*, *Espelosin* eta *Auloa* kasuetan izan ezik. Idazkunak gaztelaniaz idatzirik daude, Karolina letra larrian. Hala ere, lauzaz guztietan kaligrafia ez da kalitate berekoa eta zenbait kasutan letra modu traketsagoan idatzia dago (*Bastagillenea*, *Arrigaztelua*, ...). Hizki handien artean hizki txiki bakan batzuk tartekatzen dira, *g* eta *h*, hain zuzen ere. Formula epigrafikoa xumea da eta hiru modutan idatzirik dago, funtsean oso antzekoak: SEP. /A DE + etxe-izena –formularik ohikoena dena–, SEPULTURA DE + etxe-izena, DE LA CASA DE + etxe-izena. Azken honetan, baina, ez dago jakiterik testuaren hasieran *Sepultura* hitza ote zegoen, *Sepultura* izenaren laburdura erabiltzen da kasu gehienetan eta hizki elkarketa bat ikus daiteke DE preposizioaren kasuan. Horrez gain, aipatu behar da *Sacerdotal* izeneko hilobia ez dela etxe baten izena, apezten hilobia baizik.



4. irudia. Erliebe lauan eginiko idazkuna.



Azkenik, idazkuneen formulari eta plastikari erreparatuz, ondorioztatu daiteke egun dauden hilobi-lauzak, gutienez, hiru une ezberdinetan egin zirela.

Azkenik, zerrendako etxe-izenen alderdi formalari dagokionez, gehienek *-enea* atzizkia erabiltzen dute (%43,8) edo ez dute atzizkirik erabiltzen (%30,4). Horrez gain, *-baita*, *-ena*, *-etxe*, *-aga* eta *-eta* atzizkiak agertzen dira etxe-izenen artean.

#### 4. KRONOLOGIA

Hilobi-lauzen inguruan proposamen kronologiko bat egin ahal izateko epigrafiari eta teknikari baino ezin diegu erreparatu. Epigrafiaren presentzia Nafarroako hilarrietan eta, bereziki, harria lantzeko teknika ebakia eta epigrafiaren morfologia kontuan harturik<sup>2</sup> (Ukar & Arana, 1992; Totorikagoena, 2013; Colomo, 2020, 81-82. or.), hilobi-lauza guztiak XVIII. mendearen bigarren erdialdea eta XIX. mendearen lehenengo hamarkaden bitartean kokatu behar dira. Gainera, erran behar da data proposamena dokumentazioan dauden etxe-izenen datazioekin bat datorrela.

Ez dago baztertzerik gurutzeen berzizelkatzea gertaera historiko batekin loturik izatea, hipotesi gisa, Konbentzioaren gerran (1793-1795) gerta zitekeen. Hala izan balitz, lauza guztiak XVIII. mendearen azken hamarkadan eginak egonen ziratekeen.

Hilobien erabileraren amaiera datazioa argia da. Francisco Javier Latasak hilerrria sortzearen datazioa ederki ezagutzen du. Izan ere, hilerriko atean idatzia zegoen, 1860, baina kamioi batek kolpe eman eta hondatu zuen.

#### 5. METODOLOGIA ETA DOKUMENTAZIOA

Hilobi-lauzen epigrafia bisitatu eta argazkietan harturik dago. Testuen hasierako azterketa eta transkripzioa eliz atarian bertan egin ondotik, ordenagailuaren laguntzaren bidez, azterketa sakonagoa egin da. Sunbillako oikonimiari buruzko lanak, Hernandorenak (a. g.) idatzia eta Nafarroako Toponimia Ofizialarena, hagitz lagungarriak izan dira etxe-izenen bilakaera historikoa ezagutzeko, bai eta testua higitua zegoen kasuetan etxe-izena berreraikitze ere. Aipatu behar da Hernandorenak 1598tik 1658ra arteko bataioen elizako liburutik eta 1800. urte inguruko elizako kofradia liburutik jasotako etxe-izenak bildu dituela argitaratu gabeko lan interesgarri batean.

2 U hizkia ez da V itxurarekin idazten.

Jatorrizko tokian dauden hilobi-lauzen hurrenkera ondoko laukian irudikatu da:

1. X / 2. Escribaita / 3. Ermitagarate / 4. Bonoa / 5. Iparrioare
6. Arretxea / 7. Espelosin / 8. Sensabel / 9. Juriorena / 10. Aldamena
11. Teresabaita / 12. Beltranoa / 13. Osuenea
14. Larrakaitz / 15. Arrutenea? / 16. X / 17. Peritxena / 18. Garcirena
19. Goietxe / 20. Ponsenia / 21. X / 22. Pullaenea / 23. Altsupeia
24. ( ) nea / 25. Arondoa / 26. Danzainea / 27. Estamu / 28. Garciarena

Javier Latasaren arabera, hilobi-lauzen antolamenduak, laukian agertzen denak, ez du harreman zuzenik herrian etxeek duten kokapen geografikoarekin, Beran gertatzen den bezala (Madariaga, 2007, 255. or.).

Etxe-izenen taulako hiru zutabeetan ondoko informazioa ematen da:

1. Etxe-izena: dokumentazioan oinarrituriko nire proposamena.
2. Idazkuna: idazkunaren transkripziorako zenbait ikur eta testu molde:  
/ Testu-lerro aldaketa.  
( ) Testu ezabatua.  
. Laburduraren puntuazioa, jatorrizko testuan dagoena.  
Horrez gain, idazkunaren letra larria eta letra xehea errespetatu da transkripzioan.
3. Ahoskera eta dokumentazioa:  
Hernandorenaren lanetik hartuta, etxe-izenen egungo ahoskera adierazten da azentu-markaren bidez, erraterako, (*Altsúta*).

Bertzalde, etxe-izenen bilakaera diakronikoa ikusteko, ondoko iturrietatik jaso da dokumentazioa:

1. (\*) Hernandorenaren lanetik harturiko dokumentazioa.
2. (NTEM) Nafarroako toponimia eta mapagintza, Nafarroako Gobernuak (1999) eginiko lanetatik harturikoa.
3. Andres Iñigok jasotako datuen lekukotasunak:
  - 3.1. (NEAN) Nafarroako Errege Artxibo Nagusitik: (Val.) Sunbillako «Valuaciones» izeneko dokumentua, 1628. urtekoa eta (Ap.) Sunbillako Apeoa, 1726. urtekoa.
  - 3.2. (SPA) Sunbillako Parrokiako Artxibotik: (BL) Bataiatuen Liburutik eta (EL) Ezkonduen Liburutik.
4. (Mai) Fernando Maiora (2020, 22. or.), Sunbillako izengoitiak.

## 6. ETXE-IZENAK

Etxe-izena	Idazkuna	Ahozkoa eta dokumentazioa
ABADENEA	( ) DE ABADENEA	( <i>Abáineko borda</i> ): Abadenea (Ap., 1726), Abadenea (1800*), Abadenea (NTEM, 1860).
ALDAMENEA	SEP.A ( ) DE ALDAMENEA	( <i>Aldámeneko borda</i> ): Aldamenea (NTEM, 1860), Aldameneko borda (NTEM, 1994).
ALTSUETA	SEP.A DE AISUETEA	( <i>Altsúta</i> ): Alsueta burua (NTEM, 1541), Alsueta (1599*), Alsuetaberea (NTEM, 1676), Alsueta -borda- (NTEM, 1710), Alsueta (NTEM, 1723), Alsueta (NTEM, 1860), Alsueta (NTEM, 1894), Alsueta-Bera (NTEM, 1860).
ALTSUETABEREA	SEP. A. DE ALSUPEIA	( <i>Altsúperia</i> ): Alsuetaberea (1608*), Alsuetaberea (Ap., 1726), Alsuperia (NTEM, 1800), Alsupere (NTEM, 1994), Alsuperea (NTEM, 1994).
APEZENEA	... DE APECENEA	( <i>Apézenea</i> ): Apezarena (1611*), Apecenea, borda la casa (NTEM, 1709), Apezanea, la casa de (NTEM, 1710), Apecenea, casa llamada (NTEM, 1715), Apecenea (NTEM, 1860), Apecenea, casa de (NTEM, 1894), Apezeneko borda (NTEM, 1994).
ARANAZTARRARENA	( ) ARANAZTAR-/ RRENA	Aranaztarrena, la borda de la casa de (NTEM, 1711), Aranztarrena (Ap., 1726), Aranaztarrena (NTEM, 1860).
ARRETXEIA	SEP. A ( ) ARRECHE	( <i>Arrétxia</i> ): Arrechea (1601*), Arrecheo borda (1800*), Arrechea (NTEM, 1860), Arrechea (NTEM, 1894), Arrechea, casa de (NTEM, 1894), Arretxeo borda (NTEM, 1994).
ARRIGAZTELUA	AR( )IgAZ( )ELU	Arrigaztelu (1606*), Arrigaztelua, casa de (NTEM, 1711), Arrigaztelu, casa de (NTEM, 1711), Arrigaztelu (NTEM, 1722), Arrigaztelu (1800*), Arrigaztelu (NTEM, 1860), Arrigaztelu, casa de (NTEM, 1894), Arrigazteluko borda (NTEM, 1994).
ARRONDOA	SEP.A DE ARONDOA	( <i>Aróndoa</i> ): Arondoa (1609*), Arondoa (1800*), Arondoko borda (1800*), Aronda (NTEM, 1860), Arondoa (NTEM, 1994), Arondoko borda (NTEM, 1994).
ARRUERTENEA ala ARRUTELA	SEP. A ( ) ARRUT( )	( <i>Arrútenia</i> ): Arruertena (1615*), Arruertena (Val., 1628), Arrubertena (1626*), Arrubertena (1629*), Arruertenea (Ap., 1726), Arrutenea (NTEM, 1800), Arrutenea, casa de (NTEM, 1894).  Hilobi-lauzan dagoen espazioaren arabera, etxe-izena Arrutenea dela dirudi arren, hurrengo etxe-izena ez dago baztertzetik:  ( <i>Arrutéla</i> ): Arrutela (Ap., 1726), Arrutela (NTEM, 1860), Arrutola (NTEM, 1994), Arrutela (NTEM, 1994).
AULOA	-DE ( ) DE A( )A	( <i>Aulúa</i> ): Joanes de Ezpeleta «Auloa» (Mai, 1571), Auloa (1599*), Auloaberea (Val., 1628), Auloagaraycoa (Val. 1628), Auloa, la casa de (NTEM, 1710), Auloa, casa de (NTEM, 1894), Aulu (NTEM, 1994).
BASTAGILLENEA	BASTAILENIA	( <i>Bastáilnea</i> ): Bastaguillearena (Val., 1628), Bastallenea (NTEM, 1714), Bastaguillena, casa de (NTEM, 1715), Bastaguillenea (Ap., 1726), Bastallenea (1800*), Bastallenea (NTEM, 1860), Bastañeko borda (NTEM, 1994).
BELTRANGONEA	... DE BELTRANO/A	( <i>Betráunea</i> ): Joanes Beltrangorena «Gayat» (Mai, 1545), Beltrangorena (Val., 1628), Beltrangonea (Ap., 1726), Beltrangonea (NTEM, 1800*), Beltrangona (NTEM, 1860).

<b>Etxe-izena</b>	<b>Idazkuna</b>	<b>Ahozkoa eta dokumentazioa</b>
BELOAGA	BELOAGA	( <i>Belúko</i> ): Beloaga (1700), Beloaga (Ap., 1726), Beluaga (NTEM, 1860), Beluaga, borda (NTEM, 1890), Beluko borda (NTEM, 1994), Beluko bordako gurutzea (NTEM, 1994).
BUNOA <sup>3</sup>	SEP.A DE BONOIA	( <i>Bonúa</i> ): Bunoa (Val., 1628; BL, 1630) Urriztiburua edo Bunoa (NTEM, 1709), Bunua, la cassa de (NTEM, 1710), Bunoa (Ap., 1726), Bonua (1800*), Borda Bonua (1800*), Bonua (NTEM, 1860), Bonoa, borda (NTEM, 1894), Bonoko borda (NTEM, 1994).
BORTENEA	( ) DE BORTEN( )	( <i>Bórtenea</i> ): Bortene (1602*), Bortenea (Ap., 1726), Bortanea (1800*), Bortenea (NTEM, 1860), Bortenea, casa de (NTEM, 1894).
DANTZARINEA	SEP. A DE DANZAINEA	( <i>Dantzáinia</i> ): Danzariarena (Val., 1628), Danzariarena (Ap. 1726 –bi aldiz–), Dansainea (1800*), Danzaenea (NTEM, 1860), Danzainea, borda (NTEM, 1894), Dantzaineko borda (NTEM, 1994).
ERMIGARATE	SEPULTUR( ) DE ERMIGARATE	Ermiagaraya (BL, 1608; EL, 1608), Ermiagarate (Val., 1628), Ermiagarate (Ap., 1726), Ermigarate (1800*), Ermigarata-alta (NTEM, 1860).
ERRATZUNEA	( ) DE ERRA( )	( <i>Erratzenéa</i> ): Erraçurena (Val., 1628), Errazuenea (Ap., 1726), Erracenea (1800*), Erratzenea (NTEM, 1994), Erratzuneko borda (NTEM, 1994).
ESKRIBOBAITA	SEP. A DE ESCRIBAITA	( <i>Eskribaita</i> ): Escriborena (1800*).
EPELOSIN	( )ASA DE ESPELOSIN	( <i>Espelosín</i> ): Ezpelosin, sel de (NTEM, 1550), Ezpelossin, sel de (1558), Ezpelosin (BL, 1599), Ezpelosin (BL, 1600), Ezpelosin (BL, 1635), Espelosin (1604*), Espelosin (1605*), Spolosin (1606*), Ezpelosin, casa de (NTEM, 1676), Espelosin, borda de (NTEM, 1710), Espelosin (ap., 1726), Espelosin (1800*), Espelosingo borda (NTEM, 1994).
ESTAMU	SEP. /A DE ESTAM( )	( <i>Estámua</i> ): Estamu (1600*), Testamu (1608*), Estamu (NTEM, 1676), Estamu (NTEM, 1710), Estamu, casa de (NTEM, 1714), Estamu (Ap., 1726), Estamoa (1800*), Estamu (NTEM, 1994).
EZKERRENEA	EZQUER/A	( <i>Exkérnia</i> ): Ezquerrenea (Ap. 1726), Ezquerrenea (NTEM, 1860), Ezquerrenea, borda (NTEM, 1894), Ezkerrenekko borda (NTEM, 1994).
GARAIKOETXEA	GARAICOCH/A	( <i>Garaikoetxéa</i> ): Garaycochea (Ap., 1726). Egungo <i>Indianobaita</i> da (Hernandorena).
GARTZIARENA / GARTZIABAITA	SEP. /A DE ( )ARCIR( )	( <i>Gartzibaita</i> ): Garcibaita (1800*), Garciaremborda (NTEM, 1860); Garziarena, borda (NTEM, 1894), Gartzimborda (NTEM, 1994).
GOIETXEA	SEP./A DE GOIE( )	( <i>Goiétxia</i> ): Goicoechea (EL, 1608), Goyechea (Val., 1628; Ap., 1726), Goyenechea (NTEM, 1709), Goiechea, casa llamada (NTEM, 1715), Goyechea (Ap., 1726), Goetchea (1800*), Goikoechea (1800*), Goyechea (NTEM, 1894).
IÑATEA	SEP. (A) DE YÑATEA	( <i>Iñátia</i> ): Iñatea (Ap., 1726), Iñátea (1800*).

3 Bunoa izeneko toponimoa aski arrunta da inguru horretako zenbait herritan (ikus Iñigo, 1996).

Etxe-izena	Idazkuna	Ahozkoa eta dokumentazioa
IPARRAGERRE	SEP. /A DE YPARRIOARE	( <i>Ipárria</i> ): Iparraguerre (Ap., 1726), Iparigarra (1800*), Borda Iparigarre (1800*).
ISTOLA	DE LA CASA DE HISTOLA	( <i>Istóla</i> ): Instiola (NTEM, 1560), Insttola (NTEM, 1710), Ynsttola (NTEM, 1710), Istola garaicoa, borda de (NTEM, 1710), Istola (1800*), Istola (NTEM, 1860), Istola (NTEM, 1894), Isteliko borda (NTEM, 1994).
KONSTANTZENEA	DE C( )NS( )	( <i>Konstantzenia</i> ): Constanzarena (1657*), Constantenea, la casa de (NTEM, 1711), Constanzenea (Ap., 1726), Constancenea (1800*), Constancenea (NTEM, 1860), Constansenea (NTEM, 1981), Konstantzeneko borda (NTEM, 1994).
LANDERRENEA	DE LANDERNEA	( <i>Landérnia</i> ): Landerrena (Ap., 1726), Landerrena (1800*), Landarrenea (NTEM, 1860).
LARRAKAITZ	SEP. / A ( ) LARRAGAIZ	( <i>Larrakáitz</i> ): Larracaiz (1650*), Larracaiz (1800*), Larracaitz (NTEM, 1860), Larracaiz, casa de (NTEM, 1894), Larrakaizko borda (NTEM, 1994), Larracaitz (NTEM, 1994).
MARKESENEA	SE ( ) MARQUES	( <i>Markesenéa</i> ): Marquessarena (Val., 1628), Marquesena (NTEM, 1700), Marquessena, la casa de (NTEM, 1710), Marquesenea, la casa de (NTEM, 1711), Marquessenea (Ap., 1726), Marquesenea (1800*), Marquesena (NTEM, 1860), Marquesena-asquin (NTEM, 1860), Marquesenea, casa de (NTEM, 1894), Markesenea (NTEM, 1994).
MARKESENEA (II)	MARQU( )	Bi etxe daude izen berarekin, Hernandorenaren arabera.
OKIÑENEA	S ( ) DE O( )NENEA	( <i>Okiñenia</i> ): Oquiñena (BL, 1608), Oquiñena (1616*), Oquiñenea, la borda de (NTEM, 1710), Oquiñenea (Ap., 1726 –bi aldiz–), Oquiñenea (1800*), Oquiñenea (NTEM, 1860), Oquiñenea, casa de (NTEM, 1894), Okiñeneko borda (NTEM, 1994).
ORDAGOBAITA	SEP. /A ORDAGOR( )/A	( <i>Órdabaita</i> ): Ordagorena, casa de (NTEM, 1709), Ordago (NTEM, 1715), Ordago, la borda que llaman (NTEM, 1715), Ordagorena (1800*), Ordagorena (NTEM, 1860), Ordagorena, casa de (NTEM, 1894), Ordagobaita (NTEM, 1994), Ordomborda (NTEM, 1994).
OTSOENEA	SEP. /A OSUENEA	( <i>Otsunía</i> ): Ossoarena (Val., 1628), Ossoenea (Ap., 1726), Osunea (1800*).
PERITXENA	SEP. / A PERICHENA	Perichena (Ap., 1726), Perichena (NTEM, 1860).
PETRISANTZENEA	P( )TRISA( )	( <i>Petrisantzenia</i> ): Petrisanzena (Ap., 1726), Petrisancenea (1800*), Petrisancenea (NTEM, 1860), Petrisantzenea (NTEM, 1994).
PONTSENEA	( )E LA CASA D PONSENIA	( <i>Póntsenia</i> ): Ponsena (NTEM, 1709), Ponseneco borda (NTEM, 1709), Ponsena, casa de (NTEM, 1709), Fonsenea (NTEM, 1711), Ponsenea (Ap., 1726), Poncenea (1800*), Ponsenea, casa de (NTEM, 1860), Ponsenea (NTEM, 1894), Pontseneko borda (NTEM, 1994).
PUÑALEGILLENEA	SEP. A DE PULLAENEA	( <i>Pulláinia</i> ): Punalguillenea, casa de (NTEM, 1700), Pullainea (1800*), Borda Pullanea (1800*), Pullaenaeborda (NTEM, 1860), Pullainea, casa de (NTEM, 1894), Pulleineko borda (NTEM, 1994), Pullaineko borda (NTEM, 1994), Puñalegilleneko borda (NTEM, 1999).
-	SACERDO/TAL	Ez da etxe-izena.

Etxe-izena	Idazkuna	Ahozkoa eta dokumentazioa
SENSABEL	SEP. / (A) DE SENSABEL	( <i>Sensábel</i> ): Sensabel, casa llamada (NTEM, 1720), Sensabel (1800*), Sensabel (NTEM, 1860), Sensabel menor (NTEM, 1860), Sensabel, casa de (NTEM, 1894). Bi Sensabel daude Hernanorenaren arabera: Sensabel eta Sensabel txiki.
TERESABAITA	TERESABAITA	( <i>Trésabaita</i> ): Teresabaita (1800*), Tresarena (NTEM, 1860), Teresarena, casa de (NTEM, 1894), Tresamborda (NTEM, 1994).
TOMASENEA	DE TOMASENEA	Informazio historikorik gabe.
XARAUXAR	( ) ARAUZAR	( <i>Xáuxar</i> ): Jaraujar (1800*), Xarauxar (NTEM, 1994).
XURIORENA	SEP. / A DE JURIORENA	( <i>Xurínborda</i> ): Churionea, borda de (NTEM, 1710), Churierena, casa de (NTEM, 1711), Borda Jurioren (1800*), Jurioren borda (NTEM, 1860), Juriorena (NTEM, 1860), Juriorena, borda (NTEM, 1894), Xuriomborda (1994).

Bertze hiru etxe-izen erdi ezabaturik daude eta oikonimoa zein den ezin izan da ongi identifikatu. Hala ere, kasu batean, berreraikitzeke proposamena egin da, iraun duten hizkiak kontuan izanik:

- JOAN( )IE ( ) > Joantxerena?: Juancherena (NTEM, 1700), Juanchenea (NTEM, 1860), Juanchenea borda (NTEM, 1894), Joancheneko borda (NTEM, 1994); ala, beharbada, Juanamenea? (Juámenea): Juandemenarena (1601\*), Juandemena (1608\*), Juandemenea (1800\*).
- HA( ).
- ( )nea.

## 7. HONDAR HITZAK

Ageriko idazkunen azterketak ekarpen interesgarria ematen du hizkuntzalaritza, antropologia eta historia arloetan. Hala ere, oraindik anitz dira katalogatu eta aztertu gabe dauden idazkunak, eta tamalez, ez dira gutxi babes legal ezagatik galdu edo galtzeko arriskuan daudenak. Oikonimia ikerketetarako dokumentu osagarriak dira ageriko idazkunak, eta Sunbillako kasuan dokumentatu gabe zegoen etxe-izen baten berri eman dute: *Tomasenea*. Sunbillako hilobi-lauzetan dataziorik agertu ez arren, epigrafia aztertuz pentsa daiteke guztiak XVIII. mendearen bigarren erdialdean, edo berandueenez, XIX. mende hasieran zizelkatu zirela.

XX. mendeko jendartean izaniko aldaketa sozialen eta indibidualismoaren areagotzearen eraginez, etxe-izen tradizionalaren erabilera hilerrietatik desagertu egin da eta izen-abizenekin edo familiaren deiturarekin ordezkaturia izan da. Egun, baina, zertxobait berpiztu egin dela erran daiteke, ziur aski identitate adierazpen gisa edo euskararen

erabilerari atxikirik. Horrela ikus daiteke Sunbillako hilerriko zenbait epitafio garaikidetan. Finean, baliagarria dena erabiltzen da eta ez dena baztertzen da.

## 8. ERREFERENTZIAK

- Caro Baroja, J. (1932). Monumentos religiosos de Lesaka. *Anuario de la Sociedad de Eusko-Folklore*, 12, 7-58.
- Colomo, K. (2020a). Zer kontatzen dute Aezkoako etxeek? In *Actas HilarriCon, Jornadas sobre estelas discoideas, Abaurrea Alta/Abaurregaina, 22 al 24 de junio de 2018*. Museo de Estelas-Hilarriak.
- Colomo, K. (2020b). Etxe-izen zizelkatuak. Ageriko idazkunak etxeetan eta hilobietan *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*, 94, 9-62.
- García Gáinza, M. C. (1989). *Catálogo monumental de Navarra. V\*\**. Merindad de Pamplona. Nafarroako Gobernua.
- Hernandorena, M. (a. g.). *Sunbillako oikonimia*. Egilea.
- Iñigo, A. (1996). *Toponomástica histórica del Valle de Santesteban de Lerín (Regata del Ezkurra)*. Nafarroako Gobernua.
- Madariaga, J. (2007). *Historia social de la Muerte en Euskal Herria*. Txalaparta.
- Madoz, P. (1845-1850). *Diccionario Geográfico-Estadístico-Histórico de España y sus posesiones de Ultramar. Navarra* (ed. facsímil). Ámbito.
- Maiora, F. (2020). *Reino de Navarra. El nativo vascongado*. Egilea.
- Nafarroako Gobernua. (1999). *Nafarroako toponimia eta mapagintza, LVII. Bertizarana, Doneztebe/Santesteban, Elgorriaga, Ituren, Sunbilla, Zubieta*. Nafarroako Gobernua.
- Pérez de Villarreal, V. (1987). Estelas discoideas de Echalar y Vera de Bidasoa. *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*, 49, 95-166.
- Totorikagoena, A. (2013). *Euskal grafía erabilgarria. 144 irudiekin*. Egilea.
- Ukar, J. & Arana, M. T. (1992). La estela y la escritura en Navarra. *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*, 60, 173-202.